Ekonomia eta enpresa fakultatea

Ekonomia gradua

2023/2024 ikasturtea

Gradu Amaierako Lana

Europako herrialdeen finantza-arriskuaren neurketa denboran zehar

Autorea: Naiara Prado Martin

Zuzendaria: Jone Ascorbebeitia Bilbatua

Aurkibidea

Grafikoak

Taulak

Abstract

In this study, we analyze the financial risk of European stock indexes, focusing on Value at Risk (VaR) and Expected Shortfall (ES). We highlight the limitations of static risk measures when estimating the risk of variables that change over time. Using historical data from European indices between 2008 and 2023, we implement a moving window methodology to dynamically estimate risk, revealing significant discrepancies between static and dynamic measures. Our findings demonstrate that static models often underestimate risk during financial crises, while dynamic models provide a more accurate representation of potential losses, emphasizing the importance of adaptive risk measurement in financial management.

Lan honetan, Europako burtsa indizeen finantza-arriskua neurtzen da, Value at Risk (VaR) eta Expected Shortfall (ES) neurriak ardatz hartuta. Arrisku-neurri estatikoek denboran zehar aldatzen diren aldagaien arriskua zenbatesteko dituzten mugak nabarmentzen dira. 2008 eta 2023 arteko Europako indizeetako datu historikoak erabiliz, leiho mugikorreko metodologia bat ezartzen da arriskua modu dinamikoan zenbatesteko, neurri estatikoen eta dinamikoen arteko desberdintasun nabarmenak agerian utziz. Aurkikuntzek erakusten dute eredu estatikoek askotan gutxietsi egiten dutela finantza-krisietako arriskua, eta eredu dinamikoek, berriz, galera potentzialen irudikapen zehatzagoa ematen dutela, finantza-kudeaketan arrisku egokituaren neurketak duen garrantzia azpimarratuz.

Hitz-gakoak: Finantza-arriskua, Value at Risk (VaR), Expected Shortfall (ES), Merkatu arriskua

1. Sarrera

Bizi garen sistema ekonomiko konplexu honetan mota askotariko merkatuak barneratzen dira, non jarduera ekonomiko desberdinak aurrera eramaten diren. Merkatu hauen funtzionamendu egokia ez dago soilik arlo ekonomikoaren mende, izan ere, beraien gorabeherak arlo sozialaren zein politikoatik datoz sarritan, horietako bat finantza-merkatua dugu. Azken hamarkadetan finantza-erakundeen eta -merkatuen arteko loturen hazkundeak gogorki handitu du finantza asaldurak hedatzeko aukera. Finantza-merkatuko perturbazioak berehala zabaldu daitezke ekonomia errealera, urteetan zehar luzatu daitezkeen eragin latzak sortuz. Hori dela eta, finantza-merkatuen arriskuaren neurketa ezinbesteko jarduna da ekonomiaren funtzionamendu egokirako.

Adibide garbia dugu 2008ko krisia. Azken hau, Estatu Batuetako etxebizitzen *subprime* maileguen finantza merkatuen perturbazioarekin hasi zen eta oso denbora gutxian finantza-merkatu askotara hedatu zen, Europako hainbat finantza-erakundeen erorketa ekarriz (Brigham eta Houston, 2018). Finantza erakunde askoren erorketa etorri zen, ez zutelako kapital nahikorik merkatuaren perturbazio negatiboek sortutako galerei aurre egiteko.

Hori dela eta, bankuen beharrezko gutxiengo kapitala erregulatzeko hainbat herrialderen arteko adostasuna lortu zen helburu hura izango zuen erakunde bat sortzeko. Testuinguru horretan sortzen da Basileako Komitea, eta, horrekin batera, Basileako erregulazioa, banku-kolapso baten probabilitatea murrizteko eta horrek ekonomian dituen eraginak lausotzeko xedea duena.

Erregulazio horren lehen bertsioa 1970eko hamarkadan garatu zen, Basilea I-eko akordioekin, eta jarraitzen dute Basilea II (2004) eta Basilea III-ko (2010) ko akordioak. Dena den, bankuen beharrezko kapitala zenbatestea ez da jardun erraza eta Basilea I-ek ezarritako kapital-baldintzak txikiegiak izan ziren aktiboen azpiko arriskuari dagokionez (Tarullo, D. K., 2017). Basilearen prozesua beharrezko kapitala kalkulatzeko sailkapen sistema baten araberakoa zen. Bankuen aktiboak arriskuaren arabera sailkatzen ziren bost kreditu-arrisku kategorietan, eta ondoren, bankuak %8ko gutxieneko kapital bermea, arrisku-haztatuagatiko aktiboengatik, izan behar zuten. Hala ere, begi bistakoa zen erregulazioaren gabeziak, hala nola kreditu-arriskua soilik kontuan hartzea (Haubrich, J.

G., 2020). Aurrerago, erregulazio markoa aldatu zen kreditu-arriskuaz bestelako arriskuak kontuan hartzeko, haatik merkatu-arriskua neurtzen hasi ziren. Merkatu-arriskuaren neurketa gauzatzeko, bankuak hasi ziren barne neurketak egiten. Basileako komitetik VaR neurria sustatu zuten merkatu-arriskuagatiko beharrezko kapitala neurtzeko oinarri gisa (Bank for International Settlements, BIS 2023).

Hala ere, 2008ko krisiak erakutsi zuen moduan, neurriak ez ziren egokiak izan eta banku-sektorea finantza-krisi gogor batean sartu zen kaudimen arazo larriekin. Gainera, erregulazioaren gabeziei gobernantza eta arriskuaren kudeaketa eskasak gehitzen zaizkio. Faktore horien konbinazioak mahaigaineratu zuen arriskuaren zenbateste okerrak ekar zezakeen arazoak ekonomiarentzat (Bank for International Settlements, BIS 2023).

Beharrezko kapital neurketa akatsdunekin batera, finantza merkatuak krisiarengatik azaleratutako arazo gehiago pairatu zituen. Horietako bat ”Too Big To Fail” (TBTF) deituriko erakunde-finantzarioen gainbehera izan zen. TBTF honela defini daiteke finantza arloari dagokionez: ekonomiarentzat funtsezkotzat jotzen diren finantza-erakundeak, orokorrean bankuak, non horien porrotak diru-eskaintza nabarmen murriztea eragingo lukeen eta jarduera ekonomikoan ondorio katastrofikoak sortu ditzakete (Hetzel, L.R., 1991). Zehazki, TBTF bankuek ondorio handiak dituzte ekonomiarengan. Alde batetik, botere politiko handia dute, eta beraz, banku-erregulazioan eragiteko gaitasun handia. Bestetik, euren garrantzia dela eta, tokiko ekonomiaren funtzionamenduan, badakite porrot egitekotan gobernuak erreskatatuko dituela. Haatik, TBTF bankuek pizgarri bat dute beste edozein egoera batean hartuko lukeena baino negozio-eredu arriskutsuago bat hartzeko. Arrisku handiagoak har ditzaketenez, ondorioak kontuan hartu gabe, finantza-arazoak izateko aukerak areagotu egiten dira (Berges et al, 2023).

Guzti hori dela eta, arrisku-finantzarioaren neurketa zehatz bat gauzatzea beharrezko jarduna bilakatzen da, konplexua dena era berean. Lan honetan auzi horri helduko diogu hainbat arrisku neurketa gauzatuz eta beraien gabezia zein abantailak mahaigaineratuz. Europako hainbat burtsa indizeen errentagarritasunak aztertuko dira denboran zehar, 2008tik 2023ra arte. Erabilikoa diren herrialdeak lanerako, Frantzia, Alemania, Espainia, Suitza, Ingalaterra eta Italia dira. Azterketa gauzatzeko oso erabiliak diren Value At Risk (VaR) eta Expected Shortfall (ES) neurriak izango dira erabiliko ditugun tresnak.

Lan honen helburua finantza-aldagaien arriskuaren neurketa bat gauzatzea da hobeto ulertzeko Europako finantza-merkatuen asaldurak urteetan zehar. Lanean zehar, adierazi nahi da arriskuaren neurketak egiteak dauzkan konplexutasunak eta nolatan horiei egoki ez heltzeak ekarri ditzakeen arazoak. Horrekin batera, denboran zehar eguneratzen den arrisku neurri baten beharra mahaigaineratu nahi da, estimazio aproposak garatzeko tresna gisa.

Bigarren atalean arriskuaren azalpena eta huraren sailkapen bat emango da nagusiki merkatu-arriskuari erreparatuz. Atal horretan VaR eta ES arrisku neurrien oinarrizko teoria jorratuko da, eta era berean arrisku neurrien koherentzia-propietateei helduko zaie. Ondoren, hirugarren atalean, erabiliko diren datuak aurkeztuko dira, hauek burtsa indizeen itxiera prezioen errentagarritasun logaritmikoak direlarik. Errentagarritasunen arriskuaren neurketa jorratuko da laugarren atalean, VaR eta ES arrisku neurriak erabiliz. Bostgarren atalean, azterketa osoan zehar mahaigaineratutako ondorioak jorratuko dira. Bibliografia seigarren atalean azalduko da eta ondoren zazpigarren atalean eranskinak daude.

2. Arriskua

Arriskuaren definizio ohikoenean, arriskua gertaera bat gauzatzeko ziurgabetasuna bezala zehazten da. Dena den, finantza arloan, arriskua galera finantzarioaren ziurgabetasuna dela ulertzen da (Outreville, 1998).

Lehen aipatu dugun moduan, bankuek kapital berme bat behar dute aurreikusten ez dituzten galerei aurre egiteko. Ustekabeko galerak jakinak dira noizean behin gertatzeko, baina, hauek sortuko dituzten ondorioen tamaina jakinezina da. Hori dela eta, kapital bermeak galera horiek izatearen arriskua xurgatu beharko luke ahal den ein handienean. Jada gertatu izan den moduan, atzeraldi ekonomiko batean, litekeena da ordaindu gabeko maileguen galerak egoera arruntetan baino handiagoak izatea. Hori dela eta, egoera ekonomiko oparoetan estimatzen diren arrisku neurriek epe luzerako gutxietsi egin ditzakete arriskua (Basel Committee, 2005). Ondorioz, finantza erakundeek faktore desberdinengatik jasaten duten arrisku desberdinak kontuan izatea beharrezko jarduna da.

Finantza-merkatuen jarduerek eragin ditzaketen galerei deritzo finantza-arriskuak. Finantza-erakundeen testuinguruan, arrisku mota garrantzitsuenetariko batzuk, kreditu-arriskua, arrisku operatiboa, eta merkatu-arrisku izan ohi dira (Hull, 2018). Era berean arriskuaren kontzeptua bi kategoria nagusietan banatu daiteke: enpresa arriskua eta enpresaz kanpoko arriskua

Finantza-merkatuan gorabeherak gertatzeko probabilitateari egiten dio erreferentzia merkatu arriskuak. Arrisku mota hau, dibertsifikazioaren bidez ezabatu ezin denez, kontuan izatea garrantzitsua da inbertitzaileentzat.

Merkatu arriskuan finantza-merkatuei sistematikoki eragiten dieten faktoreak parte hartzen dute, izan, gerra, inflazioa, atzeraldiak, edota interes-tasa altuak (Brigham eta Houston, 2018).

2.1. Arrisku neurriak

Arriskuaren kuantifikazioa gauzatzeko neurri anitz daude, bakoitzak arriskuari ikuspuntu desberdin batetik heltzen diona. Lan honetan, aktibo finantzarioen arriskuari erreparatzeko “Value at Risk” (VaR) eta “Expected Shortfall” (ES) neurriak erabiliko ditugu.

2.1.1. Value At Risk

VaR neurriak aldagaiaren banaketaren kuantilei egiten dio erreferentzia. Izan bedi X aldagaia, $F(x)$ bere probabilitate banaketa eta $p \in (0,1)$ kuantila. Orduan, VaR_p neurria X-ren p-kuantila da.

$$VaR_p = x_p = inf\{x|F(x) \geq p\}$$

Ikus daitekeen bezala, VaR neurketak kuantil jakin baten zehaztapena eskatzen du, eta gero esperotako galeren estimazio puntuala ematen du. Beraz, VaR_p balioa p probabilitatearekin gerta daitekeen galera minimoa da (Olson eta Wu, 2011).

Orokorrean, VaR_p p kuantil txikietarako kalkulatzen da finantzetan, banaketaren mutur horrek suposatzen baitu arrisku egoera bat. Beraz, VaR_p neurria balio negatiboetan adierazten da, zeinua negatiboa izateak galerak adierazten dituelarik. Gero eta VaR negatiboago batek, orduan eta galera handiagoak aurreikusten ditu (Jorion, 2007).

VaR neurketak, metodo desberdinak ditu baita ere, erabiliena Basileako arauetan zehazten dena, normaltasunean oinarritutako VaR-a da (VaR^N) (Basel Committee , 2005).

VaR_p^N definitzeko, izan bedi, X aldagaia, μ aldagaiaren batazbestekoa eta σ bere desbideratze estandarra dira. eta $p \in (0,1)$ maila. Orduan, banaketa normalean oinarritutako VaR_p^N neurria X-ren p-kuantila:

$$VaR_p^N = \mu + \Phi^{-1}(1-p) * \sigma$$

Non $\Phi(X)$-k banaketa normalaren banaketa funtzioa adierazten duen. Dena den, VaR^N-k erraztasun asko eskaini arren zenbatesteko garaian, aldagai finantzarioetan normaltasuna onartzeak hainbat eragozpen izan ditzake. Finantza-aktibo gehienen errentagarritasunen banaketak buztan pisutsuak dituzte, eta hauek bereziki kezkagarriak dira, VaR-ak galeraren arriskua banaketaren ezkerreko buztanean neurtzen duelako. Egoera horretan, banaketa normala asumitzen duen eredu batek esperotako galerak alboratu ditzake (Jorion, 2007).

Oso erabilia den beste metodo bat VaR enpirikoa da (VaR^E), VaR historiko bezala ezagutzen dena baita ere (Jorion, 2007). VaR-a kalkulatzeko modu hau banaketa enpirikoan oinarritzen da, hurrengo formula jarraitzen duena: $F(x) = \frac{1}{n}\sum I\{x_i \leq x\}$.

Metodo honek duen ezaugarri deigarrienetariko bat ez-parametrikoa dela da. Arrisku-faktoreen banaketari buruzko forma funtzional zehatzik suposatzen ez duenez, aldagaien banaketa errespetatzen du.

VaR neurriak, hala ere, hainbat gabezia ditu, gehien bat erregulazio-kapitalaren baldintzak zehazteko garaian (Basileako Komitea, 2019). Hori gertatzen da VaR-ek erreferentzia egiten diolako aldagaiaren banaketaren kuantil konkretu bati. Baino ez dio erreparatzen puntu hortik haratago egon daitezkeen galerei.



1. grafikoa. VaR eta ES bi banaketa desberdinetan. Iturria: Qi Meng eta P.Mak (2014)

Ikus dezagun adibide baten bitartez. Demagun akzioen bi zorro ditugula 1. Irudian adierazten diren banaketekin:

1. grafikoko a) zein b) irudietan, VaR-aren emaitza berbera da. Dena den, argi dago bi kasuetan, $VaR_{0.05}$ berdina erakutsi arren, ez dutela esperotako galera berdina adierazten. Izan ere, b) irudiak ezkerreko buztanean arrisku maila altua egon litekeela erakusten du. Hori dela eta, VaR-ari bakarrik erreparatuko bagenioke, ez genuke ezaugarri hori kontuan izango eta bi zorroak berdin kalifikatuko genituzke arriskuari dagokionez. Hortaz, esan dezakegu VaR neurriak galera potentzialak gutxietsi ditzakeela (Acerbi et al, 2014).

2.1.2. Arrisku neurrien koherentzia-propietatea

Arrisku-neurri koherentea propietate matematiko jakin batzuk betetzen dituen neurria da. Propietate guztiak ez betetzeak emaitza zehaztugabeak sortu ditzake. Arrisku neurri bat koherentea dela onartzeko, hurrengo propietateak bete behar ditu: Monotonotasuna, Translazioekiko aldagaitza izatea, homogeneitasuna eta batukortasuna (Artzner, et al. 1999).

Batukortasun-propietateari bereziki erreparatuko diogu. Propietate horren arabera, zorroak fusionatzeak ez du arriskua areagotu behar. Matematikoki, ideia hau hurrengo eran adierazi daiteke: Z_1 eta Z_2 bi zorro badira $arrisku(Z_1 + Z_2) \leq arrisku(Z_1) + arrisku(Z_2)$ bete beharko litzateke edozein arrisku neurrirako.

Hull (2018) eta Acerbi, et al (2001)-k erakutsi duten moduan, VaR-ek ez du baturkotasun-propietatea betetzen, eta beraz ez da koherentea (Artzner et al, 1999). Badago propietate hau betetzen duen eta VaR-aren gabezia betetzen duen beste neurri bat, ES neurria (Artzner et al, 1999).

2.1.3. Expected Shortfall

Egoera hori ekiditeko, “Expected shortfall” (ES), arrisku neurria dugu. ES_p-k zorro baten esperotako galera erakusten du %p-ko kasu txarrenetan (Acerbi, Nordio, & Sintori, 2018). Izan bedi X aldagaia, $p \in (0,1)$ konfiantza-maila, eta VaR_p, VaR-ren emaitza p-kuantilean. $ES_{\ p}$ ekuazio honek definitzen du:

$$ES_p = \left| E\left[X \middle| X \leq VaR_p\right] \right|$$

Alde batetik, VaR-a egoera desegokietan izan daitezkeen galeren magnitudea neurtzeko erabiltzen da. Bestalde, egoera desegoki horiek gertatzen direnean espero diren batez besteko galera kalkulatzen du ES-k (Hull.J, 2018).

VaR^N-en bezala, ES normalaren (ES^N) neurriak aldagaiak banaketa normala jarraitzen duela asumitzen du. Lehen aipatu den moduan, kalkulatzeko garaian erraztasun handiak eskaini arren, banaketa normala jarraitzeak arazoak sortu ditzake aldagai finantzarioekin lan egiterako garaian. Gainera, ES-k puntu zehatz bat ez ezik, VaR-ren azpiko esperotako galerak zenbatesten dituenez, arazo larriagoak sortu daitezke banaketa normala erabiltzerako garaian. Izan ere, banaketa normalaren buztanak arinagoak dira aldagai-finantzarioak duten buztanak baino, ondorioz, banaketa normala suposatzean dagoen arriskua gutxietsi daiteke.

3. Analisi deskribatzailea

Lan honetan, Europako hainbat burtsa indizeen itxiera-balioaren datuak erabiltzen dira. Aztertuko diren indizeak; MIB (Italia), FTSE 100 (Ingalaterra), CAC 40 (Frantzia), SMI (Suitza), DAX (Alemania) eta IBEX 35 (Espainia) dira. Lagina eguneroko behaketaz osatuta dago, 2008ko urtarrilaren 3an hasi eta, 2023ko abenduaren 30ean bukatzen delarik. Guztira 4079 behaketa daude. Lehenengo bi indizeak, Italia eta Ingalaterrakoak, *Investing*[1] webguneko datu-basetik eskuratuak dira, beste guztiak aldiz, *Yahoo Finance*[2] webguneetik lortu dira.

[1] https://es.investing.com/indices/

[2] https://es.finance.yahoo.com/world-indices/

1. taulan aipatutako Europako indizeen itxiera prezioen datu estatistiko deskribatzaileak aurkezten dira.

1. taula: Itxiera prezioen estatistiko deskribatzaileak

	Batazbestekoa	Desbideratze estandarra	$Q_{0.25}$	$Q_{0.75}$	Maximoa	Minimoa
CAC	4812.51	1175.78	3879.04	5483.14	7596.91	2519.29
DAX	10234.71	3370.09	7017.26	12815.49	16794.43	3666.41
IBEX	9431.22	1387.95	8523.58	10310.43	14856.50	5956.30
SMI	8540.95	1921.37	6712.19	9996.57	12970.53	4307.67
FTSE	6456.25	925.16	5830.21	7255.06	8014.31	3512.10
MIB	21349.80	4145.47	18794.20	23283.77	38063.00	12362.51

1. taulan nabarmentzen den ezaugarri bat euroguneko kide diren herrialdeko indizeen (CAC, DAX, IBEX, MIB) eta ez direnen (FTSE, SMI) arteko aldea da. Esate baterako, euroa erabiltzen duten herrialdeen indizeek desbideratzen estandar handiagoa erakusten dute burtsa indize horietan aldakortasun handiagoa adieraziz. Horrek zerikusia izan dezake eurogunean eragina duten faktore ekonomiko eta politikoekin. Hala ere, herrialde horiek batez besteko itxiera-prezio altuenak dituzte, eta horrek adierazi dezake herrialde horietako merkatuak handiagoak direla. Beraz, inbertitzaileentzat, euroguneko merkatuek aukera handiagoak eskain ditzakete, aldakortasun handiagoa dutelako, baina arrisku handiagoa ere badute.

Indize zehatzei erreparatuz, MIB indizea itxiera-prezio altuenak eta aldakortasun handiena dituen indizea delako nabarmentzen da, eta horrek merkatuaren gorabeherekiko sentsibilitate handiagoa adierazten du. Bestalde, FTSE-k egonkortasun handiena erakusten du, itxiera-prezioen aldakortasun txikienarekin. Beste indizeak tarteko ezaugarriak erakusten dituzte.

Prezioak errazago bisualizatzeko, jarraian ematen den grafikoak (2. grafikoa) indizeen bilakaera denboran zehar adierazten du.



2. grafikoa. Europako burtsa indizeen itxiera prezioen bilakaera, (2008-2023). Norberak eginda

2. grafikoari begira, bi ezaugarri mahaigaineratu daitezke. Batetik, indize desberdinen itxiera prezioen magnitude desberdinak. Izan, ere 1.Taulan ikusi den moduan, indize batzuk beste batzuek baino itxiera prezio askoz altuak erakusten dituzte. Dena den, horrek ez du esan nahi errentagarritasun handiagoa eskainiko dutenik.

Bestetik, azkeneko hamarkadetan gertatutako egoerak sorturiko asaldurak ikusten dira. Europako herrialdeetako finantza-merkatuetan eragina izan duten gertaera globalei erreparatuta, lehengo asaldurak 2008. urtean somatu daitezke itxiera-prezioen jaitsiera argi batekin. Urte honetan, lehen aipatu bezala, higiezinen merkatuaren beherakada dugu. Egoera horrek nazioarteko finantza-krisi bat sortu zuen, 2012ko zor subiranoaren krisia, eta hura arintzeko gobernuak pizgarri fiskaletaz baliatu ziren.

Pizgarri fiskal horiek zor subiranoa jaulkiz finantzatzen dira. Zor subiranoa, hainbat herrialdetako eta dibisa askotako zor-betebeharretaz osatutako sarea da. Zorraren jaulkipen hain masiboek, euroguneko zor publikoko merkatuen arteko tentsio-pilaketa bat eragin zuten. Hori dela eta, sendotze-fiskaleko neurri gogorrak bultzatu behar izan zituzten, krisiaren lehen urteetan sortutako defizit publikoa murrizteko. Horiek izan ziren hain zuzen ere 2013ko amaierara arte atzeraldi-egoera luzatu zuten faktoreak.

Horrez gain, denboraldi labur bat ikus dezakegu, non itxiera-prezioak gora egiten ari diren, 2016ra arte. Azken honetan, hainbat gertakarien ondorioz, ziurgabetasuna sortu zen globalki. Horien artean, *Brexit*-a, AEB-ko hauteskundeak eta Txinaren protagonismo gero eta handiagoa nabarmentzen dira. *Brexit*-ak Erresuma Batuak Europar Batasuna uztea ekarri zuen, eta Europako testuinguruan bereziki garrantzitsua izan bazen ere, 2017ko urtarrilean Donald Trump AEB-ko presidentetzara igotzeak ekonomia eta kanpo politikaren bira erradikala ekarri zuen, mundu mailan. Azkenik, Txinak maila globalean duen protagonismo komertzialak ere eragina du Europako merkatuetan. Faktore horiek sortutako asaldurak 2016ko itxiera prezioen jaitsieran ikusgarriak dira.

Gertakari horiek eragindako nahasmenduen ondoren, finantza-erakundeek hamarkada berriaren hasieran aurreikusten zituzten arriskuak gehienbat baxuak ziren. Izan ere, krisialdiak sorturiko eraginak gainbeheran zeuden orokorrean eta ekonomiaren gorakada sumatzen zen. Dena den, proiekzio horiek aurreikusi ez zuten gertakaria pandemia baten bat-bateko larrialdia izan zen. Covid-19rengatik sortutako pandemiak etena eragin zuen jarduera ekonomikoan.

Azkenik, 2021aren amaieran energiaren merkatuetan izandako tentsioak, eta Errusiak Ukrainarekin izandako gerraren ondorengo hasiera, inflazioaren goranzko joera gehigarri baten katalizatzaileak izan ziren. Inflazioaren esnatze horrek, pandemia gainditzeko prozesuan, eskaintzaren eta eskariaren arteko desoreketan izan zuen jatorria, eta horren eragina 2022tik aurrera ikus dezakegu, grafikoko balioak nola amiltzen diren ikusita (Berges et al, 2022).

Irudi eta taula hauekin antzeman dezakegu prezioekin lan egitea zaila bilakatu daitekeela, alderatzeko zailtasunak agertzen direlako magnitude desberdinak direla eta. Beraz, errentagarritasun logaritmoak erabiliko ditugu datuen lanketa eta alderaketa gauzatzeko.

Errentagarritasuna, finantza arloari dagokionez, inbertsio batek denbora-tarte batean lortzen edo galtzen duen etekina da. Gainera, errentagarritasunak hainbat finantza-produktuen (indizeak, akzioak, opzioak…) azterketa egiteko erabiltzen dira.

Finantza eta ekonomia arloetan ohikoa den bezala, errentagarritasun logaritmikoak erabiliko ditugu lan honetan (Jorion, 2007). Errentagarritasun logaritmikoak aktibo baten balioaren aldakuntza portzentuala neurtzen dute. Errentagarritasun sinpleak ez bezala, (hauek aktibo baten aldaketa absolutua neurtzen dute) errentagarritasun logaritmikoek aldakuntza erlatiboa neurtzen dute, eta horrek abantaila asko ekartzen ditu analisi finantzarioa egiterako garaian (Saturn Cloud, 2023).

Errentagarritasun logaritmikoak hurrengo formula erabiliz kalkulatzen dira:

$$R_t = \ln\left(\frac{P_t}{P_{t-1}}\right) ,$$

non R_t-k t unean lortutako errentagarritasuna, P_t-k aldagaiaren prezioa t unean eta P_{t-1}-ek aldagaiaren prezioa $t-1$ unean adierazten dituzten.



3.grafikoa. Europako indizeen errentagarritasun logaritmikoen bilakaera denboran zehar (2008-2023). Norberak eginda

Errentagarritasun logaritmikoekin lan egiteak datu egonkorrekin lan egitea dakar gehienetan, eta horrek tendentzia ezabatzen zaiela esan nahi du. Gure kasuan indizeen errentagarritasunek egonkortasuna erakusten dute ADF testa erabiliz konprobatu dugun bezala (1.Eranskina).

3. grafikoan hautatutako indizeen errentagarritasun logaritmikoak ikusten dira 2008tik 2023ra arte. Bertan, jada aipatu ditugun gertakizunak antzeman daitezke. Lehenengo asaldura gogorrak 2008ko urtean ikusten dira, hauek 2009 eta 2010. urteetan zehar jarraitzen dutenak. Herrialde desberdinei erreparatuta, nabarmena da nola krisiak eragin handiagoa izan zuen Eurogunean. Izan ere, Suitzak eta Ingalaterrak eragin txikiagoak pairatu zituzten beste herrialdeek baino. Zor subiranoaren krisian sartzerakoan, herrialde mediterraneoak izan ziren errentagarritasunetan aldagarritasun gehien pairatu zutenak. Izan ere, Espainia eta Italiak, historikoki arazoak izan dituzte inflazioarekin, zor-publiko eta kanbio-tasaren ezegonkortasunekin. Ondorioz, ez zuten Euroguneko beste herrialde askoren indar ekonomikoa eta krisiaren ondoren beste herriandeengatik erreskate bat behartzearen oso gertu egon ziren (Saucedo Acosta, E. J. et al, 2012).

2016-2018 urteen artean, *Brexit*-a dela eta, indizeek aldakortasun handia jasan zuten. Izan ere, Londreseko burtsa Europako finantza-gune nagusia da, baina *Brexit*-aren ondorioengatik nagusitasun hori galtzearen arriskua dago. Hain zuzen ere, Londreseko

burtsan parte hartzen duten enpresa asko Europar Batasunean kokatzen dira, eta beraz Europar Batasuneko hirietara migratzea litekeen gertakaria da.

Asaldura gutxiko urte batzuen ondoren, pandemiak ekarritako krisiak errentagarritasunen aldakortasuna areagotu zuen. Kasu honetan, herrialde guztiek eraginak pairatu arren, Euroguneko herrialdeek eragin hau denbora luzeagoan zehar islatzen dute.

2. taulak Europako burtsa-indizeen errentagarritasun logaritmikoen oinarrizko estatistikoak aurkezten ditu, batez bestekoa, desbiderapen estandarra, beheko kuartila ($Q_{0.25}$), goiko kuartila ($Q_{0.75}$), maximoa eta minimoa, hain zuzen ere. Estatistiko deskribatzaile horiek alderatzean alde esanguratsuak ikusten dira..

2. taula. Errentagarritasunen oinarrizko estatistikoak, (2008-2023).

	Batazbestekoa	Desbideratze estandarra	$Q_{0.25}$	$Q_{0.75}$	Maximoa	Minimoa
CAC	0.0001	0.0141	-0.0062	0.0068	0.1059	-0.1310
DAX	0.0002	0.0139	-0.0058	0.0069	0.1080	-0.1305
IBEX	-0.0001	0.0150	-0.0072	0.0074	0.1348	-0.1515
SMI	0.0001	0.0110	-0.0049	0.0053	0.1079	-0.1013
FTSE	0.0000	0.0119	-0.0050	0.0056	0.0949	-0.1151
MIB	-0.0001	0.0163	-0.0078	0.0084	0.1087	-0.1854

DAX, SMI eta CAC indizeek antzeko maximoak dituzte (0.1080, 0.1059 eta 0.1079, hurrenez hurren), eta ondorioz merkatu horiek etekin handiak sor ditzakete oparotasun ekonomikoko aldietan.

Bestalde, IBEX indizea nabarmentzen da maximo altuena izateagatik, eta adierazten du Espainiako merkatuak izan dituela irabazi handienak, nolanahi ere, batazbesteko negatiboak eta minimo nahiko txikia izateak hegakortasun handia iradoki dezake. MIBek ere maximo handiak aurkezten ditu, eta aldi berean, desbiderapen estandar handiena eta minimo txikiena ditu. Oro har, maximo handienak dituzten merkatuak, hala nola IBEX eta MIB, hegakorragoak izan ohi dira. FTSE indizea berriz, egonkorragoa da maximo txikiagoekin. Konparazio horrek indize desberdinek irabazi-aukera handiagoak eskaintzen dituztela nabarmentzen du, baina baita arrisku handiagoak ere.

Jarraian, aztertzen ari garen 6 indizeen errentagarritasunen arteko Pearsonen-korrelazio matrizea dugu.

3. taula. Errentagarritasunen korrelazio matrizea

	CAC	DAX	IBEX	SMI	MIB	FTSE
CAC	1	0.9291	0.8858	0.8248	0.8909	0.8732
DAX		1	0.8260	0.7962	0.8501	0.8309
IBEX			1	0.7315	0.8841	0.7824
SMI				1	0.7341	0.7950
MIB					1	0.7770
FTSE						1

Korrelazio taula honek Pearsonen korrelazio-koefizienteak erakusten ditu. Pearsonen korrelazio linealak 0 eta 1 arteko balioak hartu ditzake, eta datuei begiratuz, erraz antzeman dezakegu herrialdeen finantza-merkatuen indizeen artean dagoen korrelazioa altua dela. Finantza merkatuen testuinguruan, indizeen arteko korrelazio handi batek merkatu bateko gorabeherek lotura estua dutela iradokitzen du beste merkatu bateko asaldurekin. Beraz, litekeena da merkatu horiei eragiten dieten faktore ekonomiko, politiko edo sektorial nagusiak berdinak izatea. Gainera, korrelazioak positiboak direnez, horrek aldagaien arteko lotura zuzena adierazten du, hau da, norabide berekoa. Ondorioz, merkatu bateko perturbazio negatiboak erraz zabaldu daitezke beste merkatu finantzario batean asaldura negatiboak sortuz.

Lortutako errentagarritasunen banaketa aztertzeko, histogramak sortu dira 4. grafikoan ikus daitekeenez.



4. grafikoa. EUko indizeen errentagarritasun logaritmikoen histogramak. Norberak eginda

Histogramei begira, jardun zaila bilakatzen da zein banaketari hobeto egokitzen diren jakitea, dena den, banaketa normalera doitzea izaten da ohikoena, azken honen sinpletasuna eta eskaintzen dituen abantailak direla eta.

Nola nahi ere, ikerketa askok erakutsi duten bezala, finantza-arloko aldagaiek orokorrean buztan pisutsuak erakusten dituzte. Hori dela eta, banaketa normala doitzen zaienean lortutako estimazioak alboratuta egon daitezke, eta arrisku neurriekin gertatzen dena ez da salbuespena.

Doikuntzaren gabezia horrek benetakoa den arriskuaren alborapena eragin dezake, ustekabeko galerak esperotakoak baino handiagoak izatearen arriskua hedatuz (Olson eta Wu, 2011). Fenomeno hori oso kaltegarria bihurtzen da, ustekabeko galerak handiagoak izan daitezkeenez, bankuen kapital bermea baxuegia izan daitekeelako, finantza krisi bat sortzeko aukera mahaigaineratuz (Basileako komitea, 2005).

Ondorioz, errentagarritasunak banaketa normala jarraitzen duten jakiteko Shaphiro-Wilks-en normaltasun testa erabili da (1. eranskina). Testaren emaitzetan oinarrituz, indizeen errentagarritasunek banaketa normala jarraitzen ez dutela baieztatzeko lagin ebidentzia dago.

4. Arriskuaren neurketa

Errentagarritasunen arriskuaren neurketa gauzatzeko VaR eta ES-ren arrisku neurriak erabiliko dira. Bi neurri hauen aplikazioa metodo desberdinen bidez gauzatuko da beraien arteko desberdintasunak azaleratzeko.

4.1. Neurketa estatikoa

Lagin osoa erabiliz $VaR^{E}_{p=0.05}$ eta $VaR^{N}_{p=0.05}$ kalkulatzen baditugu, denboran zehar estatikoak diren hurrengo emaitzak lortzen ditugu.

4. taula. $VaR^E_{p=0.05}$ *eta* $VaR^N_{p=0.05}$ *, EUko indizeetan*

	$VaR^E_{p=0.05}$	$VaR^N_{p=0.05}$
CAC	-0.0216	-0.0232
DAX	-0.0215	-0.0227
IBEX	-0.0233	-0.0247
SMI	-0.0167	-0.0180
FTSE	-0.0175	-0.0195
MIB	-0.0260	-0.0268

VaR^E_p -ek %p kuantileko VaR neurketa adierazten du, metodo enpirikoa kontuan izanda eta VaR^N_p-ek ordea, banaketa normala suposatuz kalkulatutako neurketa ematen du.

Lortutako datuek, arriskua kalkulatzeko orduan, desberdintasun handirik ez dagoela $VaR^E_{p=0.05}$ eta $VaR^N_{p=0.05}$ -ren artean aditzera ematen dute. Dena den, aipagarria da banaketa normalean oinarritutako VaR-ak arrisku gehiago zenbatesten du eta banaketa enpirikoan oinarritutako VaR-ak baino.

Herrialdeei erreparatuz, errentagarritasunak aztertzean mahaigaineratu den ondorioa azaleratzen da berriz ere, honek dio, Eurogunetik at kokatzen diren herrialdeak arrisku gutxiago pairatzen dutela. Izan ere, ikus daiteke Suitzak ete Erresuma Batuak indizeak VaR_p -eko balio txikiagoak adierazten dituztela, eta honek, esperotako galerak beste herrialdeekin alderatuz txikiagoak direla adierazten du.

Bestalde, Espainia eta Italiako indizeek VaR negatibodunenak adierazten dituzte, honek bat egiten du 3.grafikoari esker mahaigaineratutako ondorioekin, izan ere merkatu hauek arrisku maila handiago dute.

Jarraian, esperotako galerak aztertzeko, ES estatikoa kalkulatuko dugu. 5.taulak lagin osoarekin egindako zenbatespena ematen du %5-eko mailarako.

5. taula. ES_p^E *eta* ES_p^N *, EUko indizeetan %5 erabiliz.*

	$ES_{0.05}^E$	$ES_{0.05}^N$
CAC	-0.0347	-0.0231
DAX	-0.0339	-0.0226
IBEX	-0.0361	-0.0247
SMI	-0.0268	-0.0179
FTSE	-0.0294	-0.0195
MIB	-0.0398	-0.0267

ES_p^N-k lagin osoarekin kalkulatutako ES adierazten du banaketa normala onartuz eta %5eko kuantila kontuan hartuz kalkulatu da. ES_p^E-k, berriz, banaketa enpirikoa asumituz kalkulatutako %5eko ES adierazten du.

Indize guztietarako, ES_p^E-ren emaitza ES_p^N-rena baino negatiboagoa da. Horrek adierazten du banaketa enpirikoak muturreko galera handiagoak detektatzeko gai dela banaketa normalarekin alderatuta. Horrek iradokitzen du, merkatuaren baldintza errealetan, muturreko galerak banaketa normalak aurreikusten duena baino handiagoak direla. Gainera, aurretik adierazi den moduan, banaketa enpirikoaren eta normalaren arteko alborapena handiago da ES neurria erabiltzerakoan. Gutxi balitz, kasu honetan banaketa enpirikoan oinarritutako ES arrisku gehien zenbatesten duena da.

Indizeei dagokienez, MIBek ES negatiboena du kasu guztietan, eta horrek azaleratzen du muturreko arrisku handiena duen indizea dela, jada aipatu den moduan. Bestalde, SMI-rentzako ES-k ez du hainbesteko arriskua estimatzen beste indizeekin alderatuz, eta horrek muturreko arrisku txikiagoa iradoki dezake. Bi ondorio hauek VaR aztertu denean baita landu dira, hala eta guztiz ere, emaitza desberdinekin. Izan ere, Italiako indizeari helduz, $VaR_{p=0.05}^E$-k (-0.0260)-ko galerak estimatzen ditu %5-eko kasu txarrenetan, dena den, kasu hori emango bazen $ES_{p=0.05}^E$-k jadanik (-0.0398)-ko galera aurreikusten du batazbeste.

Aztertutako arrisku neurri estatiko hauek oso baliagarriak izan arren, gabeziak dituzte denborarekiko banaketa aldakorra duen aldagai baten arriskua estimatzerako garaian. Gertatzen dena da finantza aldagaiak ez dutela banaketa zehatz bat jarraitzen denbora zehar eta beraien forma merkatuaren gorabeheren arabera aldatzen dela denboran zehar.

4.2. Neurketa denboran zehar

Arrisku neurri estatikoek suposatzen dute aldagaiak jasaten duten arriskua konstantea dela denboran zehar, eta banaketak aldakorrak direnez denborarekin, haatik, arriskua aldakorra izan daitekeela pentsatu daiteke baita ere. Ondorioz, behar bat sortzen da arriskua denboran zehar kuantifikatzeko. Horretarako leiho mugikorren metodologia erabiliko dugu.

Leiho mugikorraren metodologia

Demagun, N tamainako lagin bat dugula. Hauek dira metodologia honekin denboran zehar estimazioak lortzeko urratsak:



5. grafikoa. Leiho mugikorren prozesua. Norberak eginda

1. n tamainako azpi-lagin bat aukeratzen da. Horixe izango da $L_t = (x_t, \dots, x_{t+n})$ leihoen tamaina $(t = 1, 2, \dots, N)$, eta prozesu osoan zehar berdina izango da.

2. Leiho bakoitzean $VaR_p(t)$ kalkulatzen da, emaitza bektore batean gordez.
3. Ondoren leihoa behaketa bat desplazatzen da (L_{t+1}) leihoa sortuz. Diagraman ikus daiteke L_t leiho bakoitzetik hurrengorako desplazamendua nola egiten den. Leiho horrek $(x_{t+1}, \dots, x_{t+1+n})$ behaketak barneratuko ditu, eta VaR-a leiho horretarako kalkulatzean bektoreko hurrengo behaketan gordeko da emaitza.
4. Prozesua iteratzen da L_{N-n+1} leihora iritsi arte.

Leiho mugikorren metodologia aplikatuko dugu VaR eta ES arrisku neurriak denboran zehar estimatzeko. Metodologia honen bidez aldagaien arriskua modu askoz zehatzago batean estimatuko da, eta estimazio guztiak batuz denborazko serieak sortuko dira arriskuaren bilakaera denboran zehar aztertzeko.

6. grafikoan VaR neurriaren bidezko arriskuaren bilakaera erakusten da. Denborazko serieek %5eko VaR_t kalkuluari egiten diete erreferentzia, lerro zuzenek aldiz, %5eko VaR estatikoak erakusten dituzte, maila berdina erabiliz.



6. grafikoa. $VaR_{0.05}$ dinamikoa eta estatikoa EUko indizeetan (2008-2023). Norberak eginda

Lerro gorriek banaketa enpirikoan oinarritutako neurriaren estimazioak adierazten dituzte eta beltzak normaltasunean oinarritutakoenak

Irudiari helduz, argi eta garbi ikusten dira, VaR estatikoa eta dinamikoaren (VaR_t) arteko aldeak. Estatikoari dagokionez, jada 4. taulan aztertu da VaR^N-k VaR^E-k baino arrisku gehiago aurreikusten duela. Dena den, bi banaketak antzeko joerak islatzen dituzte denboran zehar.

6. grafikoan argia den desberdintasuna VaR estatikoak eta VaR_t-k estimatutako arriskuaren arteko aldea da. Desberdintasun hori urte tarte jaki batzuetan dator arriskuaren gehiegizko estimazioagatik eta besteetan arriskuaren gutxiespenagatik. 2012-2015 eta 2017-2019 urte tarteetan merkatua egoera ekonomiko on batean zegoen (*Bull market trend* deritzona), ondorioz VaR_t-k ez du hainbesteko arriskua aurreikusten, eta neurri estatikoak estimatzen duena baino gutxiago espero du. Dena den, merkatuaren egoera larrian (*Bear market trend*) dagoenean neurri estatikoak ez du gaitasuna dinamikoak estimatzen duen arriskua zenbatesteko, izan ere, VaR_t-ko neurriak VaR estatikoaren kalkuluaren hirukoitza edo gehiago aurreikustera iritsi daiteke, 2008 edo 2020ko kasuetan hain zuzen ere. Gutxi balitz, krisi garaietan arriskuaren zenbatespen apropos bat egiteak berebiziko garrantzia hartzen du, izan ere, horrelako testuinguruan merkatu-arriskuaz aparte, beste arrisku batzuk azaleratzeko joera egoten delako.

Finantza aldagaien banaketa denboran zehar aldakorra denez, litekeena da arriskuren estimazioa denboran zehar aldakorra izatea baita ere. Hori aztertzeko, VaR_t-ren estimazioaren konfiantza tarte bat egingo da, ikusteko VaR estatikoa konfiantza-tarte horren puntu onargarri bat den.

Konfiantza tarte ez parametriko bat sortuko dugu, honek ez duelako asumitzen aldagaien banaketa zehatzik. Horretarako gerturapen binomialaren metodoa erabilikoa da.

Izan bedi N tamainako lagin bat eta n arrakasta kopurua q probabilitatearekin eta (1-q) huts egitearen probabilitatea, orduan $\hat{x}_i$ lortzeko probabilitatea banaketa binomial batekin $Bin(n, q)$ estimatu daiteke. Hurrengo formula erabiliz konfiantza-tartea eraikiko lizateke (Ialongo C.,2019).

$$KT_\alpha = ((N * q) \pm z_{\frac{\alpha}{2}} * \sqrt{(n * q) * (1 - q)})$$



7. grafikoa. EUko indizeen, $VaR_{0.05}^{N}$ *konfiantza tartea, %5eko mailarekin ete* $VaR_{0.05}^{N}$ *estatikoa. Norberak eginda*

7. grafikoan urdinez %5eko VaR_t^E dinamikoa adierazten da eta urdin argiaz konfiantza tartea dugu, bestetik beltzez, $VaR_{0.05}^{E}$-ren balio estatikoa. $VaR_{p=0.05}^{E}$ estatikoa eta konfiantza-tartearen barnean sartzen denean, lagin ebidentzia dago aitortzeko biak arrisku berdina zenbatesten dutela esateko %95-ko konfantza-mailarekin. Ordea, neurri estatikoa konfiantza tartetik kanpo dagoenean arriskua denboran zehar aldakorra dela ondorioztatzen da.

7. grafikoari helduz, herrialde guztietan zehar antzeman daiteke VaR estatikoa ez dagoela momentu oro konfiantza-tartearen barnean. Horrek iradoki dezake soilik konfiantza-tartearen barnean dagoen uneetan VaR estatikoak VaR dinamikoak estimatzen duen arriskua zenbatesteko arriskua neurtzeko gaitasuna duela.

Gainera, VaR estatikoa konfiantza tartetik kanpo aurkitzen den momentu askoetan merkatua egoera latzetan aurkitzen denean da. Eta momentu horietan estatikoak lortzen duen estimazioa arriskuaren gutxiespen bat da.

Beraz, ondorioztа dezakegu, errentagarritasunak denboran zehar banaketa aldakorra duten bezala, ez dagoela arriskua konstantea dela iradokitzen duen lagin-ebidentziarik, %5eko esangura maila kontuan izanda. Hori dela eta, arriskua aldakorra dela kontuan hartzen ez duten arrisku neurriak erabiltzeak arriskua estimazioa alboratzen duten zenbatespen-arazoak eragin ditzakete.

8. grafikoan ES-ren eragina denboran zehar aztertuko dugu, estatikoarekin alderatuz indize desberdinetan.



8. grafikoa. $ES^{E}_{0.05}$ *eta* $ES^{N}_{0.05}$ *EUko indizeetan (2008-2023). Norberak eginda*

8. grafikoak sei burtsa-indizeen arriskuak izan duten bilakaera erakusten da ES-ren bitartez neurtuz. Grafiko bakoitzean, marra gorriek banaketa normala asumitzen duen %5eko ES ($ES_{0.05}^{N}$) adierazen dute. Lerro beltzek, berriz, banaketa enpirikoan oinarritutako %5eko ES-ren estimazioa adierazten dute ($ES_{0.05}^{E}$).

VaR neurria aztertu denean (6. Grafikoan) baita argia zen desberdintasun bat zegoela neurri dinamikoetan. Dena den, espero daitekeen moduan, ikusgarriagoak dira desberdintasunak ESn eurria erabiltzen denean. Gainera, VaR aztertu denean, neurri dinamikoen arteko alderaketa bat egitea zaila bilakatzen zen antzeko balioak hartzen zituztelako, dena den, ES-ri erreparatzen bazaio, errazagoa da ikustea banaketen arteko desberdintasunak arriskuaren estimazioan duen eragina.

Aldagai finantzarioen kasuan, 3.eranskinean azaldu den bezala, buztan pisutsuagoak agertzen dira, muturreko asaldurak gertatzeko probabilitate handiagoa islatzen dutenak (Hull et al, 2018). Horren ondorioz, ES_{t}^{E}-ek estimatutako arriskua, ES_{t}^{N}-k estimatu duena baino altuagoa da oro har, eta era berean, $ES_{0.05}^{E}$-ek hobeto errespetatzen duenez aldagaien banaketa, arriskuaren zenbatestepen egokiago bat egiten du banaketa aldakor horiekin. Asaldurak txikiak diren egoeretan, bi banaketek ez dute hainbesteko alderik adierazten. Hortaz, merkatuaren oparotasun aldietan (*bull market trend*) banaketa normal zein enpirikoak antzeko emaitzak eskaintzen dituzte.

Dena den, krisiak bezalako asaldurak gertatzen direnean arrisku neurriak banaketa normala oinarri hartzen duenean, ez du banaketa enpirikoa oinarritzat hartuta estimatzen diren galerak kalkulatzeko gaitasuna. Hori dela eta, finantza-aldagaien arriskuaren azterketa gauzatzeko banaketa enpirikoa hartuko da oinarritzat hemendik aurrera.

